


Mugikortasun seguru eta jasangarriaren unitate didaktikoa
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa

Mugikortasun jasangarri, seguru eta osasungarria



PERTSONA
HELBURU

EUSKO JAURLARITZA

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza



COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

Aurkezpena

Ezer baino lehen, eskerrik asko ikasmaterial hau erabiltzeagatik. Espero dugu baliagarria izatea ikasleak bide-segurtasuneko gaietan hezteko.

Irakasle zaren aldetik, funtsezkoa da zure ekarpena baterako lan pedagogikoan, ikasle belaunaldiak gure kaleen eta errepideen bide-segurtasuneko eta bide-segurtasunaren balioetako, eskubideetako eta betebeharretako hezkuntza jasotzeko. Hala, aldi berean, ohitura seguru eta arduratsuak eskuratuko dituzte, oinezko, garraio publikoaren erabiltzaile, ibilgailu pribatuetako bidaiari eta txirrindulari hasiberri diren aldetik.

Beharrezkoa da haurren artean talde-kontzientzia sustatzea eta txikienek mugikortasunari buruz gogoeta egitea, oinezko, txirrindulari eta garraio publikoaren erabiltzaile diren aldetik. Zalantzarik gabe, oinarritzko prestakuntza hori funtsezkoa izango da gure herrietan eta hirietan mugikortasun seguru eta jasangarria sustatu eta sendotzeko.



Gure ardura politikoentzat eta administratiboentzat laguntza handia da zuen ekarpen pedagogikoa, bai istripuak ekiditeari dagokionez, bai istripu-tasak murrizteari dagokionez. Bitarteko naturala eta garrantzitsua zarete belaunaldi berriak kaleak eta espaloiak, autobideak eta errepideak, bidegorriak, garraiobide publikoak edo pribatuak, banakakoak edo kolektiboak, partekatzen ditugun erabiltzaileon arteko begirunean hezi, eta egungo zein etorkizuneko mugikortasuna seguruagoa, adeitsua eta arduratsuagoa izan dadin.

Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzan irakatsiko dituzuen Segurtasun Sailaren Trafiko Zuzendaritzak atondutako hezkuntza-unitate hauek baliagarriak izango zaizkizuelakoan nago, egunez eguneko lan pedagogikoan laguntza praktikoa izateko sortu direnez.

Eskerrak ematen dizkizuet lan pedagogiko horregatik.

Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz

Segurtasuneko sailburua

Sarrera

12 – 14 urteko adin tartea nabarmendu egiten da mugikortasunaren aldetik, nolabaiteko autonomiarako urratsa egiten baitu. Adin horretako neska-mutikoak bakarrik mugitu ohi dira, bereziki eskolara joateko eta aisiako nahiz kiroleko jarduera jakin batzuk egiteko. Hirietan, garraiobide publikoak edo bizikleta erabiltzen hasten dira; eta gutxi batzuk adiskideek gidatutako motozikletetako edo autoetako bidaiari izaten hasten dira.

A *priori* istripu larriak izateko arrisku txikiagoa duen tarte hori balia dezakegu, beraz, mugikortasunaz eta pertsonengan nahiz Lurrarengan izan ditzakeen ondorio txarrez gogoeta egiteko.

Bizitzaren aldetik, helburutzat jar dezakegu ikasleek ezagut eta goza dezatela autonomia seguru eta jasangarri batean oinarritutako mugikortasun bat. Eta goizegi ez daitezela hasi nork bere ibilgailu motorduna izaten edo halakoa duten adiskideak mirespenez bilatzen.



Programazioa jardueretan egituratuta dago. Honelako fitxetan jaso dira jarduerak:

Izenburua:

Jardueraren izenburua

- Eskola curriculumeko arloak: atal honetan adierazten dira estuen loturiko eskola curriculumeko arloak.
- Agenda 21eko gaiak: jarduera honetan landu diren Agenda 21eko gaiak adierazten dira.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak argitaratu duen Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen gida liburuak gaitasuna adierazten da.

Helburuak:

✓ Jardueraren helburu pedagogikoak.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Proposatutako jarduera egoki gauzatzeko behar diren informazio eta kontzeptuak zehazten eta azaltzen dira hemen.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Proposatutako jarduera nola egin, hezitzailearentzako jarraibideak emanda.

Eranskinak:

Jarduera egiteko behar diren dokumentuak.
Batzuetan, Trafiko Zuzendaritzako Baliabideen Katalogora daramaten estekak dira eranskinak.

Emaita:

Dokumentuak, jardueran egindako materialak, eta azken ondorioak.

Argibide eta baliabide gehiago:

Jarduerari eta haren edukiari lotutako bibliografia, interesa duten estekak edota dokumentuak.

Aurkibidea

SENTIBERATZEA

06

1. Bartzelonako esperimentua 06

DIAGNOSTIKOA

08

1. Joan-etorrietarako ohiturei buruzko inkesta 08

Eranskina: Joan-etorrietarako ohituren inkesta

2. Auto partikularrean edo garraio kolektiboan 10

Eranskina: Konparazio fitxa

3. Besteiei eragin diezadaten uzten diet? 12

Eranskina: Eraginari buruzko galdeketa

EKINTZA PLANA

14

1. Autobuseko istorioak 14

2. Autobuseko istorioak 16

3. Dakar rallya 18

4. Eskolatik hirira 20

5. Eztabaida eta sor ezazu zeure eslogana 22

6. Hiru S dituen mugikortasunaren aldeko kanpaina: 24

ikastetxe Seguruak, Jasangarriak eta oSasungarriak

7. Adituen lantegia 26

EBALUAZIOA

27

1. Horma-irudiak 27

2. Trukea 29

ERANSKINAK

30

SENTIBERATZEA

1. Bartzelonako esperimentua

Izenburua:

Bartzelonako esperimentua

- Eskola curriculumeko arloak: Natur zientziak.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Gizabanakoek hirietan dituzten joan-etorrietarako ohiturak aztertzea.
- ✓ Hirien hazkunde jasanezina eta ibilgailu motordunek eremu publikoan egiten duten inbasioa identifikatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Proposatutako bideo laburrak modu erraz eta laster-
rean erakusten du pertsona kopuru berak hartzen
duen tokiaren neurria nabarmen aldatzen dela, zein
garraiobide erabiltzen den.

Autoz bidaiatzen duen pertsona kopuru batek eremu
publiko txikiagoa behar du garraiobide publikoan bi-
daiatuz gero, eta are txikiagoa oinez joanda. Bideo
honekin, zenbait kontzeptu sar ditzakegu, hala nola
eremu publikoaren erabilera, hirien erabilerak, ibilgailu
pribatuaren jasanezintasuna, eta abar.

SENTIBERATZEA

1. Bartzelonako esperimentua

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Saioa abiatzeko, bideo hau ikusiko dugu:

http://www.youtube.com/watch?v=gnX6_SF1xGU

Ondoren, hezitzaileak talde txikietan eztabaida bat egi-
tea proposatuko du, hiru galdera hauei erantzun die-
zaieten:

- *Zer ikasi dugu Bartzelonan egindako esperimentu horrekin?*

- *Uste duzu berdin gertatzen dela gure herrian edo hi-
rian?*

- *Ikusi dugunetik abiatuta, zer jardunbide egoki buru-
ratzen zaizkigu geure eguneroko bizitzarako?*

Jarduera bukatzeko, talde txiki bakoitzaren erantzunak
ikastalde osoari azalduko dizkiote.

Eranskinak:

--

Emitza:

--

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

DIAGNOSTIKOA

1. Joan-etorrietarako ohiturak

Izenburua:

Joan-etorrietarako ohiturak

- Eskola curriculumeko arloak: Gizarte zientziak, Geografia eta Historia - Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa - Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Gizabanakoek dituzten joan-etorrietarako ohiturak aztertzea, aurreko hamarkadekin alderatuta.
- ✓ Hirien hazkunde jasanezina eta ibilgailu motordunek eremu publikoan egiten duten inbasioa identifikatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Hezitzaileak azken hamarkadetan hiriek izan duten eraldaketa eta mugikortasunean izan diren aldaketak aurkeztuko ditu. Adibidetzat har daiteke Gasteiz eta

haren eraztun formako hazkundera, haren berdeguneak eta kanpoaldea, erabileretan eta distantzietan izandako aldaketak azaltzeko.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Egin beharreko inkestaren kopia bana emango die hezitzaileak ikasleei. Ikasle bakoitzak bere ingurune adintsu bati inkesta bat egingo dio —aitona-amonetako bati egiten baldin badio, hobeto—, aurreko garaietako egoerarekin hobeto konparatu ahal izateko.

Ikasle bakoitzak inkestako emaitzak gaur egungo egoerarekin alderatuko ditu, eta ezberdintasunei buruzko gogoeta egingo du, galdera hauek aintzat hartuta:

DIAGNOSTIKOA

1. Los hábitos de desplazamiento

Nola egin:

- *Garraiobide berak al dira? Zergatik?*
- *Ibilgailuen zirkulazioa noiz da arriskutsuagoa, lehen ala orain? Zergatik?*
- *Jarrera eta jokabide berak al dira? Arriskutsuagoak ala seguruagoak?*
- *Lehenago, jokabideak osasungarriagoak edota sedentarioagoak ziren?*

Ikasle bakoitzak, inkestako informazioa kontuan hartuta, idazketa bat egingo du, lehengo mugikortasunaren eta oraingoaren arteko aldeak esplikatzeko.

Ikastaldea erdibituta, talde bietako bakoitzak horma-irudi bat egingo du: batak duela urte askoko mugikortasunarekin, eta besteak egungo mugikortasunarekin, bildutako datuetan eta idazketetan oinarriturik.

Eranskinak:

- *Joan-etorrietarako ohituren inkesta*

Eraitza:

Inkestak eta horma-irudiak

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

DIAGNOSTIKOA

2. Auto partikularrean edo garraio kolektiboan

Izenburua:

Auto partikularrean edo garraio kolektiboan

- Eskola curriculumeko arloak: Matematika
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria - Airearen kutsadura.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa - Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Auto partikularren erabilera garraio kolektiboaren erabilerarekin konparatzea.
- ✓ Garraio publiko eta kolektiboak garraio pribatu eta ia indibidualaren aldean dituen abantailak ezagutzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Hezitzaileak ikasleei galdetuko die ea ondorengo hiru garraiobide hauetatik zein erabiltzen duten gehien: oi-nez joatea, auto partikularra ala autobusa.

Zenbait erantzun jaso eta gero, hiru garraiobide horiek ikuspegi orokorretik aztertzea proposatzen da (jasangarritasuna, segurtasuna eta osasungarritasuna).

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Ikasleek, talde txikietan banatuta, erabakiko dute ea erlaziorik baden ondorengo aldagai hauen artean, bai erlazio hori zer motatakoa den zehaztu ere:

- Lastertasuna eta prezioa.
- Lastertasuna eta segurtasuna.

- Segurtasuna eta prezioa.
- Prezioa eta erosotasuna.
- Kutsadura eta lastertasuna.
- Kutsadura eta segurtasuna.
- Segurtasuna eta erosotasuna.

DIAGNOSTIKOA

2. Auto partikularrean edo garraio kolektiboan

Nola egin:

Adibidez: zenbat eta lastertasun handiagoa, prezio handiagoa du garraiobideak.

Ondoren, hiru garraiobideen konparazio fitxa osatuko dute, beharrezko kalkuluak eginda.

Fitxak osatutakoan, ikasle bakoitzak aldagai bat hautatuko du aurreko zerrendatik, eta hezitzaileak taldeari hainbat galdera egingo dizkio, gogoeta eragiteko:

- Zer aldagai iruditzen zaizue garrantzitsuena? Lastertasuna, prezioa, segurtasuna, erosotasuna ala kutsadura?
- Orain duzuen informazioarekin, zer iritzi duzue zuen mugikortasunaz?
- Zure mugikortasuna bat dator hautatu duzun aldagiarekin, ala kontraesanean dago?

Eranskinak:

- *Konparazio fitxa*

Eraitza:

--

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

DIAGNOSTIKOA

3. Besteei eragin diezadaten uzten diet?

Izenburua:

Besteei eragin diezadaten uzten diet?

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Taldeko presioarekiko erresistentzia.

Helburuak:

- ✓ Taldeak geure erabaketan duen eraginaz gogoeta egitea.
- ✓ Norberaren irizpideez ohartzea (jasangarritasunari, osasunari eta segurtasunari dagokienez), eta egoera jakin batzuetan irizpide horiek defendatzen jakitea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Adin horretan, erabakiak hartzean adiskide taldeak protagonismo handiagoa hartzen du familiak baino.

Dinamika horretan sartzea ezinbestekoa da nork bere burua areago babes dezan.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak ikasleei galdetuko die ea beren ustez nork bere irizpideak dituzten, edo aitzitik beren kideek eragin diezaieten uzten duten. Ikastaldeak iruzkin batzuk egin eta gero, hezitzaileak bakoitzarentzako galdeketa bat banatuko du, erabakiak hartzearen gaineko eraginari buruz. Ikasleek egiazaletasun handienaz erantzungo diote galdeketa, eta beren puntu kopurua kalkulatu

dute galderen bukaeran doan taula erabiliz.

Binaka, emaitzen iruzkinak eta konparazioak egingo dituzte. Gero, talde handian, eztabaidari ekingo diote, galdera bakoitzari eta emaitzei buruz.

DIAGNOSTIKOA

3. Besteei eragin diezadaten uzten diet?

Eranskinak:

- *Eraginari buruzko galdeketa*

Emitza:

--

**Argibide eta
baliabide gehiago:**

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

1. Autobuseko istorioak

Izenburua:

Autobuseko istorioak

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa - Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Garraiobide jasangarriak erabiltzean jarrera pertsonalak balioztatzea.
- ✓ Garraio publikoak pribatuaren aldean dituen abantailak ezagutzea.
- ✓ Garraio kolektiboaren gizarte eta ingurumen abantailez gogoeta egitea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Hezitzaileak testuak egiteko metodoa azalduko die ikasleei:

- **1. fasea**, ideia-jasa: imajina eta idatz ezazu zer gerta dakizukeen (egiatan edo irudipenean) autobusaren zain edo autobusez bidaiatzean.
- **2. fasea**, argumentua hautatzea: Zer gertatuko da sarreran? Zer jazoko da korapiloan? Nola izango da amaiera?

- **3. fasea**, lehen idazketa: idatz itzazu ideia nagusiak modu antolatuan.

- **4. fasea**, behin betiko idazketa: sar itzazu zure kontakizunean adjektiboak eta xehetasunak, irakurleak berak istorioa bizi izan dezan

EKINTZA PLANA

1. Autobuseko istorioak

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Ikasleek kontakizun labur bat idatziko dute: autobus batean (edo beste nonbait) gertatutako istorio bat.

- Zer-nolako istorioak sortu dituzte ikasleek? Beldurrezkoak, maitasunezkoak, umorezkoak, eguneroko eszenak?
- Uste duzu fikziozko istorioak direla, ala errealistak? Uste duzu horrelako istorioak ibilgailu pribatuetan po-

sible liratekeela edo ibilgailu pribatuetara estrapola litezkeela? Zergatik?

Jarduera osatzeko, originalentzat hautaturiko bi kontakizun har ditzakegu, eta jarduera bera egin duten beste eskola edo talde batzuei aurkeztu.

Eranskinak:

--

Eraitza:

Autobusari buruzko kontakizun laburrak

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

2. Bidegorriak

Izenburua:

Bidegorriak

- Eskola curriculumeko arloak: Gizarte zientziak, Geografia eta Historia.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa - Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Bidegorrietatik zirkulatzearen garrantzia identifikatzea.
- ✓ Bizikletaz zirkulatzearen arriskuak balioztatzea.
- ✓ Bizikletaz ibiltzeko beharrezko diren prebentzio neurriak ezagutzea.
- ✓ Joan-etorriak bizikletaz egitearen jasangarritasunak dakartzan abantailei buruz gogoeta egitea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Joan-etorriak bizikletaz egitea ona da jasangarritasunerako eta osasunerako. Hala ere, bizikleta eguneroko garraiobidetzat erabiltzeak istripu larriak izateko eta are hiltzeko arriskuak ditu. Horrenbestez, garrantzitsua da bizikletaz bakarrik ibiltzen diren neska-mutikoei betebeharrak

hauek dituztela gogoraraztea:

- Bidegorria erabili ahal den guztietan.
- Bizikletarako kaskoa erabili.
- Oinezkoak errespetatu, eremu berean baldin badabiltza.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak ikasleei proposatuko die bidegorriei buruzko ikerketa bat egitea, hainbat fasetan zatituta. Horrenbestez, hainbat egunetan egiteko antola daitekeen jarduera bat da.

Lehenengo fasean, eztabaida bat irekiko da hiruna ikaslek osatutako taldeen artean, txirrinduz ibiltzearen arriskuei eta abantailei buruz aldeztatik zer iritzirik dituzten eztabaida dezaten. Talde bakoitzeko kide bati

EKINTZA PLANA

2. Bidegorriak

Nola egin:

eskatuko zaio ideiak bil ditzan. Galdera batzuk egin daitezke, hitz eginarazteko. Adibidez:

- *Zuen ustez zer arrisku ditu hirian bizikletaz ibiltzeak? Eta errepidean?*
- *Zuen ustez zer abantaila ditu bizikletaz ibiltzeak?*
- *Zer babes edo prebentzio neurri har ditzakegu, bizikletaz ibiltzearen arriskuak txikiagotzeko?*
- *Zer iritzi duzue bidegorriei buruz? Nahikoa al daude? Seguruak dira?*

Bigarren fasean, bidegorriei eta bizikletaren erabilerari buruz kalean egin beharreko elkarrizketa baten gidioa egingo dute taldeek.

Gidoia bukatutakoan, talde bakoitzak galderak iraku-

rriko ditu. Egoki irizten bada, gidoi bakarra adostu daiteke guztien artean, edo talde bakoitzak bere elkarrizketa egin dezala.

Hirugarren fasea landa lana da; taldeko kideek zereginak banatuko dituzte beren artean. Batzuek elkarrizketak egingo dizkiete oinezkoei eta txirrindulariei, bidegorrietatik hurbil. Beste batzuek, berriz, behaketa erregistro bat beteko dute, bizikletaz doazenen jokabideak jasotzeko.

Laugarren fasean, ikasleek labur esplikatuko dituzte elkarrizketen eta behaketa erregistroaren ondorioak. Eta berriz egingo dituzte hasierako galderak, egiaztatzeko ea iritzia aldatu duten edo argudioetan ñabardura berriak agertu diren.

Eranskinak:

--

Eraitza:

--

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

3. Dakar rallya

Izenburua:

Dakar rallya

- Eskola curriculumeko arloak: Gorputz hezkuntza - Natur zientziak.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa - Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Motorrezko kirolean izaten den mugikortasunak dituen ondorio ez-jasangarriez gogoeta egitea.
- ✓ Ohartzea ezen, hain ospetsuak eta ospatuak diren kirol ekitaldietan ere, egiaz arrisku handia hartzen dela kirolarien eta heritarren segurtasunarekin.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Gure mugikortasuna hainbat arrazoik eragiten dute: eskolara etortzea, eroatera joatea, aisialdia, kirolen bat egitea. Beste arrazoi bat gidatzeko eta lehiatzeko plazera da; horregatik parte hartzen du jende askok 1 formulako lasterketan edota Dakar rallyan.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak ideia-jasa bat abiatuko du, ibilgailu motordunen kirol ekitaldiei buruz (hala nola lasterketak edota rallyak), galdera hau eginez:

Ikasleek emandako ideiak paperean edo arbelean idatzi eta gero, Dakar rallyari buruzko bideoa ikusiko dugu: <http://www.rtve.es/alacarta/videos/dakar/muerte-acecha-dakar/377263/>

- *Zer dakigu auto lasterketez eta ibilgailu motordunez?*

EKINTZA PLANA

3. Dakar rallya

Nola egin:

Hezitzaileak lauko taldeetan banatuko ditu ikasleak, eta kirol ekitaldi horiei buruzko informazioa bilatzera animatuko ditu, ideia-jasako informazioa baieztatzeko eta sakontzeko asmoarekin.

Hezitzaileak lasterketen ondorioei buruzko eztabaida abiatuko du:

- Zuen ustez, zergatik egiten dira horrelako lasterketak?
- Zuen ustez, zer irabazten dute Dakar rallyak eta horrelako lasterketek zeharkatzen dituzten herriek? Uste duzue galtzeko edo irabazteko zerbait badutela?

- Horrelako lasterketa batek egiten den tokiko ingurumenean zer ondorio dituela iruditzen zaizue?
- Uste duzue horrelako kirol batek parte hartzaileen osasuna hobetzen duela?
- Zer iritzi duzue lasterketetan gertatzen diren heriotzei buruz? Uste duzue saihestu daitezkeela? Nola?

Ikasleek posterrak egingo dituzte informazio berriarekin eta aurreko galderen erantzunekin.

Eranskinak:

--

Eraitza:

Aisiak nahiz kirolak eragindako mugikortasunari eta ingurumenean nahiz bide segurtasunean dituzten ondorioei buruzko posterrak.

Argibide eta baliabide gehiago:

Dakar rallyari buruz, Wikipedian:

- http://eu.wikipedia.org/wiki/Dakar_rallya
- http://es.wikipedia.org/wiki/Muerte_en_deportes_de_motor

Dakar rallyaren ingurumen ondorioei buruzko bideoa:

- <https://www.youtube.com/watch?v=EBmpvq2uaTY>
- [Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa](#).

EKINTZA PLANA

4. Eskolatik hirira

Izenburua:

Eskolatik hirira

- Eskola curriculumeko arloak: Gizarte zientziak, Geografia eta Historia.
- Agenda 21eko gaiak: Eskola eta herria - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Egokitzea eta malgutasuna.

Helburuak:

- ✓ Eskolatik inguruko hiri handietara joan-etorriak egiteko aukerak aztertzea.
- ✓ Ikerketa teknikak erabiltzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Hiri handietan, mugikortasuna konplexua izan daiteke. Garraio aukerak ezagutzeak eta adierazle nahiz mapak egoki erabiltzeak segurtasuna eman diezaieke joan-etorriak autonomoki egiten hasten ari diren ikasleei.

Jarduera honetan, ikasleak aztertzen du bere joan-etorrietako ohiturak aldatzea, eta aukera seguruago eta jasangarriagoak bilatzen ditu, bereziki eskolara ibilgailu pribatua etortzeko ohitura baldin badu.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Ikasle bakoitzak ikertuko du nola heldu beste hiri batera edo gure hiriaren beste muturrera, eskolatik, garraiobide alternatibo bat erabiliz.

Talde txikiak eratuko dituzte, aukeratutako helmugaren arabera, eta ikertuko dute ea nola iritsi eskolatik toki horretaraino.

Ikasleek eskolatik aldentuta dauden hiriko gune batzuk hautatuko dituzte, edota inguruko hirietan daudenak.

Ikerketa hori egiteko, informazioa bila dezakete Interneten, udalaren webgunean, metroarenean, eskualde-

EKINTZA PLANA

4. Eskolatik hirira

Nola egin:

ko autobusarenean, eta abarretan.

Garraio publikoaren planoak inprima ditzakete, hiriaren mapa bat eskuratu, edota eurek krokis edo plano bat egin.

Krokis edo mapa horretan markatuko dute garraiobide bakoitzak egiten duen ibilbidea, bai eta abiapuntua (eskola) eta helmuga ere.

Ikasleek ikerketan jaso behar dute ibilbidea egiteko txartelaren kostua, dauden deskontuak aintzat hartuta (taldeentzakoak, ikasleentzakoak, erretiratuentzakoak, eta abar).

Eranskinak:

--

Eraitza:

Joan-etorrietarako aukerak erakusten dituen krokisa edo mapa.

Argibide eta baliabide gehiago:

Eskola dagoen hiriko edo auzoko mapa.

Bilboko metroa

- www.metrobilbao.net
- *Gasteizko garraio publikoa*
- *Donostiako Tranbia Konpainia*
- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

5. Eztabaida eta sor ezazu zeure eslogana

Izenburua:

Eztabaida eta sor ezazu zeure eslogana

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Taldeko presioarekiko erresistentzia.

Helburuak:

- ✓ Hirietan mugikortasun jasangarriak duen etorkizunari buruz eztabaidatzea.
- ✓ Dugun ekintza eta eragin gaitasunaz gogoeta egitea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Hezitzaileak eztabaidarako metodoa azalduko die ikasleei: bi talde izango dira aurrez aurre, elkarren kontrako ideiekin. Asmoa da iritzi eta argudio ezberdinak plaza-ratzea, eta horrela beren ikuspegiaren arteko aldea agerian jartzea.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak ikasleen erdiak ikasgelako mutur batean jarriko ditu, eta beste erdiak beste muturrean. Talde batek etorkizunean ibilgailu pribatuaren bizikidetza hirian ona izango dela aldeztuko du; eta besteak, berriz, kaltegarria dela aldeztuko du, hirian osasunerako, se-

Konparazio batera, honela abiaraz genezake eztabaida: «ondoren, zuen zeregina izango da zuen jarreraren alde hitz egitea eta argudiatzea ea zer den hoberena, eskolara bizikletaz etortzea eta horrela sasoian izatea eta gero buelta bat emateko aukera izatea, ala eskolara autoz etortzea eta horrela udan fresko ibiltzea eta neguan bero».

gurtasunerako eta jasangarritasunerako ondorio larriak izango dituela. Ikasleek aukera dezakete zein aldetan arituko diren, eta taldeak oso desorekatuak baldin bada, ikasleak anima ditzakegu beste ikuspuntua aldezttera, ikaskuntza gisa.

EKINTZA PLANA

5. Eztabaida eta sor ezazu zeure eslogana

Nola egin:

Talde bakoitzak bere argudioak emanaz eztabaida eta beren jarrera aldezteko esloganak sortuko dituzte.
egin eta gero, bi taldeak talde txikietan banatuko dira,

Eranskinak:

--

Eraitza:

Mugikortasunari buruzko esloganak.

**Argibide eta
baliabide gehiago:**

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

6. Zure ikastetxean hiru S-ak sustatzeko kanpaina

Izenburua:

Zure ikastetxean hiru S-ak sustatzeko kanpaina

- Eskola curriculumeko arloak: Natur zientziak - Gorputz hezkuntza.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Zure herrian osasuna, jasangarritasuna eta bide segurtasuna sustatzeko ekintzak sortzea.
- ✓ Ekintzarako eta eragiteko gaitasunaz gogoeta egitea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Hezitzaileak ikasleei elkartegintzaren ideia azalduko die, eta irabazi-asmorik gabeko xede baten alde jendea mobilizatzeko gaitasuna.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Ikasleek, bost laguneko taldeetan, hiru S-etatik (oSasuna, JaSangarritasuna eta bide Segurtasuna) bat aukeratuko dute. Hezitzaileak S bakoitzeko gutxienez sei talde izatea bermatu behar du.

Talde bakoitzak ikastetxean egiteko moduko hiru ekintza edo jardura asmatuko ditu. Beste ikastetxe batzuetako informazioa bila dezakete.

Esaterako, hamaiketako osasungarriaren egunean, ikasleek jolasgaraian fruituak banatzeko eta osasun jardura edo lantegiak egiteko aukera dutenean.

Ikastaldeari aurkeztuko zaizkio ekintza proposamenak eta bozkatu egingo dute. S bakoitzerako boto gehien duten ekintzak prestatu eta aurrera eramango dira ikastetxean.

EKINTZA PLANA

6. Zure ikastetxean hiru S-ak sustatzeko kanpaina

Eranskinak:

--

Emitza:

Gure ikastetxean egin ditzakegun ekintzen eta bozketen laburpen kartela.

**Argibide eta
baliabide gehiago:**

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

7. Adituen lantegia

Adituen lantegian, 3 – 6 ordu eskainiko dizkiogu aditu bati, mugikortasun seguruaren gai batzuetan sakondu dezan. Aditu horiek udaltzainak izan daitezke, edo mu-

gikortasuneko monitoreak; saio praktiko eta atseginak egingo dituzte, honekin batera doazen programazioen antzekoak.



EBALUAZIOA

1. Horma-irudiak

Izenburua:

Horma-irudiak

- Eskola curriculumeko arloak: Arte hezkuntza.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

✓ Programazioaren eragina ebaluatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Jardueretan zehar kartelak sortzea oso baliagarria izango zaie ikasleei. Izan ere, landutako gaiei buruz

gogoeta egiten jarraitzeko aukera emango die.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Talde txikietan, kartelak eta horma-irudiak egingo dituzte:

- Autoek eremu publikoa gutxiago erabiltzeko proposamenak jasotzen dituen kartela.
- Joan-etorriak oinez eta bizikletaz egin daitezen sustatzeko proposamenak jasotzen dituen kartela.
- Txirindulari eta oinezkoentzako proposamenak jasotzen dituen kartela.

- *Ikastetxe seguru, jasangarri eta osasungarria izateko proposaturiko ekintzak jasotzen dituen kartela.*
- *Nolako litzateke hiria, seguruagoa, osasungarriagoa eta jasangarriagoa izango balitz?*

Programazioan erabilitako kartel, marrazki, argazki eta mapetako materiala birzikla dezakete ikasleek.

EBALUAZIOA

1. Horma-irudiak

Eranskinak:

--

Emitza:

Ekintzak azaltzen dituzten kartelak eta horma-irudiak.

**Argibide eta
baliabide gehiago:**

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EBALUAZIOA

2. Trukea

Izenburua:

Trukea

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak - Arte hezkuntza.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia - Arreta - Egokitzapena eta malgutasuna - Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

✓ Programazioaren eragina ebaluatzea.

Nola egin:

Gomendatzen dizugu zure ikastaldearekin egin duzun lana trukatzeko eta zabaltzeko ekintzak egin ditzazula. Hona hemen zenbait ideia:

- Erakuts itzazue ikastetxean egindako kartel, horma-irudi eta kontakizunak.
- Jar zaitez harremanetan ikastetxe bereko biga-

rren hezkuntzako beste ikastaldeekin irakasleekin, eta konpara itzazue ondorioak.

- Truka itzazu ondorioak ardatz bera egin duten beste eskoletako ikastaldeekin.
- Helaraz iezazkiozu atera dituzuen ondorioak Udalari.
- Jakinaraz iezazkiezu ondorioak gurasoei.

Eranskinak:

--

Eraitza:

Hezkuntza komunitateko eta udalerriko gainerako kideekin bilerak eta batzarrak egitea.

Argibide eta baliabide gehiago:

- [Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.](#)

ERANSKINAK

Diagnostikoa

Joan-etorrietarako ohiturei buruzko inkesta

IZENA: _____

ELKARRIZKETATUAREN ADINA: _____

1. Non hazi zara, herri batean ala hiri batean? Zenbat biztanle zituen (gutxi gorabehera)?

2. Nolakoak ziren zure etxearen inguruko kaleak? Eta hiriko edo herriko beste aldeetan?

(Ba al zuten semafororik, espaloirik, oinezkoen igarobiderik, asfaltorik, lurrik...? Espaloiak zabalak ala estuak ziren?...)

3. Zein tokitan jolastu ohi zinen txikia zinenean?

4. Zure gurasoak nola joaten ziren lanera? Eta zu eskolara?

ERANSKINAK

Diagnostikoa

Joan-etorrietarako ohiturei buruzko inkesta

5. Askotan irteten zinen zure auzotik? Zergatik?

6. Zein zen garraiobiderik erabiliena, oro har?

7. Bazenuen bizikleta?

8. Bazegoen garraio publikoa? Zein?

9. Zure ustez zer jarrera zuen jendeak zirkulazio araei buruz? Adibidez, autoak gelditzen al ziren oinezkoei pasatzen uzteko? Gidariekin nola gidatzen zuten? Oinezkoak nola ibiltzen ziren eta nola zeharkatzen zuten kalea? Gaurko trafikoa ezberdintasunik bazen?

ERANSKINAK

Diagnostikoa

Konparazio fitxa

Konpara itzazu ondorengo hiru garraiobide hauek:

**OINEZ
JOATEA**

**60 AUTO
PARTIKULAR**

**HIRIBUS
BAT**

Energia kontsumoa (autobus baten kontsumoa = auto batena bider 1,5)			
Airearen kutsadura (autobus baten kutsadura = auto batena, gutxi gorabehera)			
Okupatutako espazioa (60 lagun daramatzan autobus baten neurriak: 2,44 x 9,15 m; 1,3 lagun eraman ohi dituen auto baten neurriak: 1,6 x 4,50 m)			
Kostu ekonomikoa (auto batena: aseguruua, parkina, mantentzea, eta abar; autobus batena: txartela)			

ERANSKINAK

Diagnostikoa

Eraginari buruzko galdeketa

Erantzun iezaiezu galdera hauetara zintzotasunez, 1etik 5era bitarteko puntuazioa emanaz (1 = ia inoiz ez; 5 = ia beti).

	1	2	3	4	5
1. Semaforoa gorri dagoenean, mundu guztia pasatzen bada, ni ere bai.					
2. Zerbait erosten dudanean, garrantzi handiagoa ematen diot markari, ea kutsatzen duen edo ez pentsatu gabe.					
3. Bizikletan ibiltzean, nire adiskideek kaskoa jartzen badute nik ere jartzen dut; bestela, ez.					
4. Nire adiskide gehienek nahiago badute zinemara autoz eraman gaitzaten, ni ere autoz joaten naiz, nahiz eta nahiago dudana oinez edo autobusez joatea.					
5. Adiskideen arteko eztabaidetan, neure iritzia baldin badut ere, gehienek iritzia denean adierazten dut iritzi hori, bestela ez.					
6. Larunbatetan, kirolen bat egitea gustatzen zait, baina dagoeneko ez dut egiten, nire adiskideek nahiago dutelako ordenagailuarekin jokatu.					
7. Ikasgelan inork ez duela birziklatzen ikusten badut, nik ere ez dut egiten, nahiz eta etxean birziklatzen dudana.					

- Kalkulatu emaitza:
- Guztira lortzen den batura 7 puntutik 10era bitartekoa baldin bada, horrek esan nahi du gutxitan uzten diezuela besteei zuri eragiten.
 - Guztira lortzen den batura 10 puntutik 20era bitartekoa baldin bada, horrek esan nahi du aldi jakin batzuetan bakarrik uzten diezuela besteei zuri eragiten.
 - Guztira lortzen den batura 20 puntutik 35era bitartekoa baldin bada, horrek esan nahi du askotan uzten diezuela besteei zuri eragiten.

MATERIAL HAU EGIN DUTE:

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

formaccio



SIGNOS DE IDENTIDAD
Consultores de Imagen & Comunicación

2014